

PTA

*Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi
Elkartegia, S.A.*

ESTATUTUAK

Honako Hauek Oinarri Hartuta Prestatutako Testu Bategina:

- 1992ko Eratze eskritura
- 1995eko Estatutuen aldaketa, 1. artikulua aldatzen duena
- 2010eko Estatutuen aldaketa, 8. artikulua aldatzen duena
- 2020ko Estatutuen aldaketa, 2. artikulua aldatzen duena



ESTATUTOS DEL
PARQUE TECNOLÓGICO DE ALAVA-ARABAKO TEKNOLOGI
ELKARTEGIA, S.A.-REN ESTATUTUAK

1. ARTIKULUA IZENDAPENA, HELBIDEA, XEDEA ETA IRAUPENA

PARQUE TECNOLÓGICO DE ALAVA - ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA SA izeneko merkataritza-sozietate anonimoa Miñano Nagusian (Araba) dago helbideratuta, N-240 errepidea, 9. Km, ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIREN instalazioetan. Administrazio Kontseiluak ondo iruditzen zaizkion sukurtsal, gordailu eta bulegoak ezarri, ezabatu eta lekualdatu ahal izango ditu, baita helbide soziala aldatu ere, udalerrri beraren barruan.

Denbora mugagabez arituko da industria-inbertsioa eta ekimena sustatzen eta estimulatzeko; horretarako, industria-pabiloien konplexua eraikiko du, haien ustiaketa kudeatuko du alokairu-formulen bidez, jabetzaren transferentzia bidez edo bestelako moduren baten bidez, lagatze prekarioa barne; lokalak eta zerbitzuak sustatu eta merkaturako ditu; bertan ezartzeko hautagai diren enpresak hautatu eta gonbidatuko ditu, teknologia aurreratuko arloetan jarduerak egiten dituzten enpresak, bereziki produktu, prozesu eta zerbitzuetan aplikatutako elektronikak eta informatikako (hardware eta softwarea) eremukoak sustatuta; eta instalazio mota honetan nahitaezkoak diren zerbitzuen ustiapen eta etengabeko kudeaketa egingo du: Testu-prozesuak, Telex, ordenagailu bidezko marrazketa, konexioak datu-baseekin, ordenagailuen alokairua, bulegoetako makinaren alokairua, bilera-gelak eta telefono bidezko arreta pertsonalizatua. Eratze-eskritura egindako egunean hasiko ditu eragiketak.

2. ARTIKULUA KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

Kapital soziala 50.279.982 euro da. Hori 824.262 akzio izendunetan ordezkaturak dago, akzio bakoitzak 61 euroko balio nominala izanik, hurrenez hurren 1etik 824.262 arte zenbakituta, biak barne, eta eskubide politiko eta ekonomiko berberekin klase bera osatzen dute. Guztiak erabat harpidetuta eta ordainduta daude.

Titulu izendunen bidez -anitzak izatea aurrez ikusten da- ordezkaturak daude akzioak, eta Sozietatearen ardura den akzio izendunen erregistro-liburuan erregistratu behar dira.

Akzio guztiak mota eta serie berekoak dira, titularrari akziodunaren bidezko baldintza ematen diote eta eskubide berberak ematen dizkio: Kapital Anonimoen Legeko 93. artikuluan aipatutakoak, bereziki irabazi sozialen eta likidazio-ondarearen partaidetzarekin lotutakoak, akzio berriak edo akzio bihur daitezkeen obligazioak jaulkitzean lehentasunezko harpidetzarekin lotutakoak, Batzar Nagusietara joatearekin eta botoa izatearekin lotutakoak eta akordio sozialei aurka



egitearekin eta informazioarekin lotutakoak. Era berean, aipatutakoez gain, Sozietate Anonimoen Legean eta aplikatzen den bestelako lege-xedapen orotan ezartzen direnak ere ematen dituzte.

Sozietatearen akzioak besterendu gura dituen bazkideak, nahi hori idatziz jakinarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari. Administrazio Kontseiluak hilabete bateko epean gainerako akziodunei jakinaraziko die. Akziodunek bi hilabeteko epea izango dute erosteko aukera izan eta erosketa gauzatzeko. Akzioak erosi gura dituztenak bat baino gehiago badira, horien artean banatuko dira, bakoitzaren akzioa hainbanatuta.

Salgai dauden akzioak nahi dituen bazkiderik ez baldin badago, Sozietateak erosi ahalko ditu, hogeita hamar eguneko epean, Legeak ezarritako muga eta ondorioekin.

Behin epea igarota, bazkidea libre izango da bere akzioak eskualdatzeko egokitzat deritzon moduan; horretarako, bi hilabeteko epea izango du.

Aurretik ezarritako eroslehentasun-eskubidea erabiltzeari dagokionez, salmenta-prezioan desadostasunik badago, perituak finkatuko du. Eskualdatu beharreko akzioen balio erreala, gutxienez, izan beharko du salmenta-prezioak. Aldeek elkarrekin adostuta izendatuko dute peritua; edo, ados ez badaude, eskumena duen epaileak.

Baliogabetzat hartuko dira Sozietatetik kanpoko pertsonen egiten zaizkien akzio-eskualdaketak, baldin eta estatutuetan ezarritakora doitzen ez badira.

3. ARTIKULUA BATZAR NAGUSIA: DEIALDIA ETA BERTAN HARTUTAKO AKORDIOEN DERRIGORTASUNA

Batzar Nagusia bost eguneko aurrerapenez akzio baten edo gehiagoren titulartasuna egiaztatuko duten akziodunek osatuko dute, Legeak ezarritako moduan egingo dute deialdia eta bertako erabakiak, estatutu hauen arabera eta indarrean den legediaren arabera hartutakoak, nahitaez betetzekoak izango dira akziodun guztientzat, baita disidente edo agertu ez direnentzat ere.

4. ARTIKULUA BATZAR MOTAK

Bi motatako Batzar Nagusiak egingo dira: Ohikoa eta Ezohikoa

Ekitaldi bakoitzaren lehen seihilekoan bilduko da Ohiko Batzar Nagusia, nahitaez. Bertan, kudeaketa sozialaren gaineko iritzia emango da, aurreko ekitaldiko kontuak onetsiko dira, hala badagokio, eta emaitzaren aplikazioari buruzko erabakiak hartuko dira.



Gainerako batzarrak ezohikoak izango dira. Noiznahi bil daitezke Batzar Nagusiaren eskumenekoa den edozein gai jorrazteko; Legearen arabera, berariaz, Ohiko Batzar Nagusiari dagozkion gaiak izan ezik.

Aldez aurretik deialdirik eta iragarpenik egin gabe, Batzar Nagusia –bai ohikoa, bai ezohikoa– deituztat hartuko da, baita edozein gai jorrazteko baliozki eratuta ere, baldin eta kapital ordaindu guztia bertan badago eta bertaratutakoek aho batez onartzen badute Batzarra egitea. Bilera helbide sozialetik kanpo egin daiteke, baina beti lurralde espainiarrean.

5. ARTIKULUA BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK

1.- Sozietate Anonimoen Legean, aplikagarri diren lege osagarrietan eta estatutu sozialetan adierazitako ahalmenak emango zaizkio Batzar Nagusiari.

2.- Akziodunen Batzar Nagusia –bai ohikoa, bai ezohikoa– lehen deialdian baliozki eratuko da, bertaratutako edo ordezkaturako akziodunek boto-eskubidedun kapital harpidetuaren % 25 dutenean, gutxienez. Bigarren deialdian baliozki eratuko da Batzar Nagusia, bertaratzen den kapitala edozein izanda ere.

Halere, lehenengo deialdian beharrezkoa izango da bertaratutako edo ordezkaturako akziodunek, gutxienez, boto-eskubidedun kapital harpideturen % 50 edukitzea ondoko akordioetara heltzeko:

- a) Kapitala handitu edo gutxitzeko
- b) Obligazioak jaulkitzeko, baita interes-tasak, amortizazio-epeak eta kreditu-eragiketa horiekin loturiko beste edozein alderdi ezartzeko ere.
- c) Estatutuak aldatzeko, eta Sozietatea eraldatzeko, bat-egiteko edo zatitzeko akordioak adosteko.

Halaber, bigarren deialdian, nahikoa izango da aipatu kapitalaren % 25 bertaratzearekin.

Boto-eskubidedun kapital harpidetuaren % 50 baino gutxiago ordezkutzen duten akziodunak bertaratuz gero, aldez aurretik adierazitako a), b) eta c) ataleko akordioetara baliozki heltzeko, beharrezkoa da Batzarrerara bertaratutako edo bertan ordezkaturako dagoen kapitalaren bi herenek aldeko botoa ematea.

6. ARTIKULUA DELIBERAZIOA ETA BOZKETA

Administrazio Kontseiluko presidentea izango da Batzar Nagusietako buru edo, hura egon ezean, Batzarrek izendatutako administraria. Administrazio Kontseiluko idazkariak egingo ditu idazkaritza lanak edo, hura egon ezean, Batzarrek izendatutako administrariak.

Presidenteak ondoko zereginak izango ditu: deliberazioak bideratuko ditu, hitza eskatu duten bertaratutakoei hitza emango die –bakoitzak hitz egiteko duen denbora eta mintzaldiak muga ditzake– eta argibideak emango ditu Estatutu



Sozialen interpretazioaren eta betetzearen inguruan. Akzio bakoitzari boto bana dagokio. Botoen gehiengoaren arabera hartuko dira akordioak.

Dagokion liburuan jasoko dira Batzar Nagusien aktak, eta presidenteak eta idazkariak sinatu beharko dituzte. Batzarrak berak onets ditzake aktak, edo hala ez bada, presidenteak eta gutxienekoaren ordezkari batek eta gehiengoaren ordezkari batek –Batzarrean aukeratu beharrekoak– onetsi beharko dituzte hamabost eguneko epean.

Ziurtapenei dagokienez, idazkariak liburuan jasoko ditu eta presidenteak ontzat emango.

7. ARTIKULUA ADMINISTRAZIO KONTSEILUA: IZAERA ETA FUNTZIOAK

Administrazio Kontseilua da Sozietatearen kide anitzeko organoa. Hari dagokio Sozietatea kudeatzea eta ordezkatzea zentzurik zabalenean, auzian eta auzitik kanpo. Batzar Nagusiaren akordioetan adierazitako mugak baino ez dira zehaztuko, eta Batzar Nagusiari legez dagozkion edo estatutuen bidez aitortzen zaizkion ahalmenak ere bai.

8. ARTIKULUA OSAKETA, IZENDAPENA, KARGUAK ETA IRAUPENA

Administrazio Kontseilua bederatzi kidek osatuko dute; horiek Batzar Orokorrak izendatuko ditu, akziodunek proposatuta eta honako baldintza hauekin:

PRESIDENTEA: SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN Y RECONVERSIÓN INDUSTRIAL SAK proposatuta

LEHEN PRESIDENTEORDEA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK proposatuta.

BIGARREN PRESIDENTEORDEA: SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN Y RECONVERSIÓN INDUSTRIAL SAK proposatuta

1. KIDEA: SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN Y RECONVERSIÓN INDUSTRIAL SAK proposatuta

2. KIDEA: SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN Y RECONVERSIÓN INDUSTRIAL SAK proposatuta

3. KIDEA: SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN Y RECONVERSIÓN INDUSTRIAL SAK proposatuta

4. KIDEA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK proposatuta.

5. KIDEA: Gasteizko Udalak proposatuta.

6. KIDEA eta IDAZKARIA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK proposatuta.

Presidenteorde anitz badaude, zenbakituta egongo dira presidenteordetzak. Presidente berataratu ez bada, ezintasunen bat badu edo kargua hutsik badago, presidenteordenen zenbakien arabera zehaztuko da presidentea ordezkatzeko ordena.

Administrariet ezingo dute abenduaren 26ko 25/1893 Legean zehaztutako inongo bateraezintasun izan, eta ezingo dira SAL Legearen 121. artikuluan zehaztutako inguruabarrak eman. Karguan bost urtez egongo dira, gehienez ere. Halere, agintaldia bukatutakoan, berriz hautatuak izan ahalko dira iraupen bereko aldirako, berrautaketa mugarik gabe. Batzarrak ezarritako moduan eta denboran berrituko dira karguak, Batzarrak bereizketa egin ahal izatea eragotzi gabe.

Akziodunen Batzar Nagusiak sistema bat zehatz dezake Administrazio Kontseilu osoa berritu beharrean, partzialki eta hurrenez hurren berritzeko, nahiz eta lehenengo agintaldian edo antzeko beste inguruabarretan, iraupena aurretik zehaztutakoa baino txikiagoa izan administrazio-organoko kide batentzat edo batzuentzat.

9. ARTIKULUA

Kontseiluko presidentea berataratu ez bada edo gaixorik badago, presidenteordeak ordezkatzeko du; hura egon ezean, Kontseiluak izendatutako kontseilaria izango da ordezkaria.

10 ARTIKULUA

1.- Administrazio Kontseiluko presidentek deialdia egin ondoren edo kontseilarien herenak hala eskatuta bilduko da Administrazio Kontseilua, Sozietatearen funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen den guztietan, eta hiru hilean behin gutxienez.

2.- Deialdia berrogeita zortzi ordu lehenago egingo da gutxienez – presidentek premiazkotzat hartzen duenean izan ezik-, eta gai-ordena zehaztuko da.

3.- Ez da beharrezkoa izango Kontseiluak aldeztu aurretik deialdia egitea. Izan ere, kontseilari guztiak bertan badaude, eta horiek aho batez erabakitzen badute bilera egitea, edozein akordio hartzeko baliozki eratuta dagoela ulertuko da.

11. ARTIKULUA BILERAK EGITEA ETA AKORDIOAK ADOSTEA

1.- Administrazio Kontseilua baliozki eratuta egongo da baldin eta bilerara kide guztien erdia gehi bat berataratu badira.

2.- Administrazio Kontseiluko presidentea bileren buru eta gidari izango da.



3.- Kontseiluko idazkariari dagokio deialdiak izapidetzea eta saioak prestatzea. Bileretan gertatutakoa aktetan jasoko du eta presidentek ontzat eman ondoren sinatuko ditu, baita adostutako akordioen ziurtapena jaulkiko ere.

Idazkaria bertaratu ez bada, gaixotasunik badu, legez ezinezkoa badu edo kargua hutsik badago, kontseilari gazteenak ordezkatuko du funtzioetan.

4.- Bertaratu diren kideen gehiengo absolutuaren arabera adostuko dira akordioak; berdintasunik egonez gero, presidentek du kalitateko botoa

5.- Sozietateak bileren akta-liburua jasoko du; Kontseiluko idazkariari dagokio liburua gordetzea eta egoera onean edukitzea.

12. ARTIKULUA ESKUDANTZIAK

Antolaketa eta barne-erregimeneko arauak eta jarraibideak ezarriko ditu Administrazio Kontseiluak, eta Sozietatearen eskubide eta betebeharrak erabili eta betetzeko ahalmenik zabalena izango ditu. Sozietatearen ordezkari izango da auzian eta auzitik kanpo, enpresaren egitekoarekin loturiko alderdi eta negozio guztietan. Era berean, Sozietatearen eskubide eta betebeharrak erabili eta betetzeko, edozein ekintza eta kontratu egin dezake –ondasun, higigarri eta higiezinak eskuratzeko negozioak eta horien gaineko kargari edo xedapenari dagozkionak barne- eta edozein motatako eskubideak erabil ditzake.

13. ARTIKULUA AHALMENAK ESKUORDETZEA

Administrazio Kontseiluak –bertako kideen herenak aldeko botoa eman badu– ahalmena du batzordeak eratu eta antolatzeko, baita kontseilari delegatuak eta kudeatzaileak izendatzeko ere. Izendatutako pertsona horiek ahalmenak izango dituzte –legez eskuordetzan eman daitezke– oro har, edo gai nahiz negozio jakinetarako egotzi zaizkien funtzioak egoki gauzatzeko.

14. ARTIKULUA URTEKO KONTUAK

Urtero, abenduaren hogeita hamaikari dagokionez, Administrazio Kontseiluak urteko kontuak adieraziko ditu (balantzea, galdu-irabazien kontuak eta azalpen-memoria), baita kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena ere. Kontu-ikuskariak urteko kontuak eta kudeaketa-txostena berrikusiko dituzte. Era berean, Ohiko Batzar Nagusian onetsi beharko dira aipatu kontuak.

15. ARTIKULUA GASTUAK, ERRESERBAK ETA MOZKINEN BANAKETA

Eskuratutako produktuei ondokoak kenduko zaizkie: gastu orokorrak; ekitaldi sozialari dagozkion zergak ordaintzeko aurrez ikusten den kopurua; aktiboaren elementuak amortizatzeko eta arriskuak aurrez ikusteko bideratu beharreko kopurua, Batzarrak egokitzen hartutakoa; eta Legearen 214. artikulua legezko

erreserba-funtsean edo borondatezko erreserba- funtsean adierazitako kopurua. Mozkinak –egonez gero– akziodunen artean banatuko dira, baldin eta kontabilitateko ondare garbiaren balioa ez bada – banaketaren ondorioz ere bai-kapital soziala baino baxuagoa. Sozietate Anonimoen Legearen 194.3. artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartu beharra dago. Era berean, erreserba-funts, aurreikuspen-funts edo kontu berri batean sar daitezke mozkinak, Batzar Nagusiak erabakitakoaren arabera.

Nolanahi ere, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, Sozietatearen kontabilitateko ondare garbia kapital soziala baino txikiagoa bada zergak ordaindu ondoren, funtsean, galerak konpentsatzeko erabiliko dira mozkinak. Oraindik ere mozkinik geratuz gero, artikulua honetan adierazitakoaren arabera aplikatu ahalko dira.

16. ARTIKULUA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

SAL Legearen 103. artikuluari jarraiki edo SAL Legearen 260. artikuluan xedatutako legezko edozein arrazoi dela bide, Sozietatea desegitea ados dezake Akziodunen Batzar Nagusiak. Halaber, Administrazio Kontseiluak –pertsona bakarrarekin batean, zenbaki bakoitia izan dadin– likidazioari ekingo dio, estatutu hauen bertutez eta indarrean dagoen zuzenbide positiboaren preskripzioekin bat etorritik. Bestalde, estatutuen arabera eta legez dituen ahalmenei eutsiko die Batzar Nagusiak.

17. ARTIKULUA ARBITRAJEA

Legeak beharturik prozedura bereziren bat bete behar duten gaiei kalterik egin gabe, estatutu hauek betetzean eta betearaztean sortutako edozein zalantza, galdera edo desberdintasun ebazteko, 1988ko abenduaren 5eko Legeak ezartzen dituen ekitateko arbitrajeak jarraituko dira.